



JOHN KAO-K EMANGO DIO ASTEARI HASIERA

Munduko herrialde eta eskualdeetako berrikuntza-agendak zehaztu, koordinatu eta gidatzeko ardura duen *Large Scale Innovation (ILSI)* Institutuko liderra da John Kao, eta bere azken liburua, "*Innovation Nation*" azken urteotako negozio-libururik onena bezala jo izan dute.

Kao-ren hitzaldiak hasiko du Astea Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, azaroaren 9an, eta ekitaldi hau Gipuzkoako hiriburua kulturaren Europako hiriburu izateko hautagaitza sustatzeko ekintzen artean sartzen da.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria Patxi Lopez ekitaldian buru izango da.

Bilbo, 2009ko urriaren 22a.

John Kao munduan eragin handieneko ahotsetakoa bat da berrikuntza eta sormenari buruzkoetan, eta ongi merezita du "Mr Creativity" ezizena, *The Economist* aldizkari ospetsuak Kaori eskaini zion azalean proposatua. Bera arduratuko da Zientzia, Teknologia, Berrikuntza, Kalitatea eta Bikaintasunaren Astearen zortzigarren edizioa hasteaz, eta hori **azaroaren 9an izango da, astelehena, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian**. Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, eta Innobasquek eta Euskalit-ek koordinaturik, datorren azaroaren 9 eta 22 artean Euskadi osoan egingo den zabalkunde-programa zabal baten abiapuntua izango da. Ohi den bezala, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari jauna, Patxi Lopez izango da sarrera-ekitaldiko burua.

John Kao psikiatra da heziketaz, jazz-musikari profesionala, idazlea, film-ekoizlea eta unibertsitateko irakaslea. Bere burua "gauza berrien ikertzaile"tzat jotzen du, eta enpresek eta gobernuek berrikuntza maila guztietan berenganatzea eskatzen du, berak bere bizitzan eta lanean egin duen bezalaxe. John Kao eremu guztietako (zientzia, berrikuntza, teknologia berri, aisialdi eta entretenimendu, eta abarretako) enpresa multzo zabal baten sortzailea da. Bere enpresa-jarduerari osagai artistikoa ere gehitu behar zaio, "*Sex, Lies and Videotape*", "*Mr. Baseball*" eta "*The Golden Child*" filmak ekoitzi baitzituen. Jazz-zale handia, diziplina honek bere lan guztia inspiratu duela aitortzen du, zeren eta "inspirazioaren eta diziplinaren arteko orekan ikusten baitu erakundeetan instituzionalizatu beharrekoa". Baita ere John Kao irakasle da Harvard Business School (HSB), MIT-en Media Lab, Yale College eta US Naval Postgraduate School delakoetan. Bere argitalpenik esanguratsuenen artean



azpimarratzekoak dira "Jamming: The Art and Discipline of Business Creativity" (Jamming: Negozio-sormenaren artea eta diziplina), 12 hizkuntzetara itzulia, eta "Innovation Nation" ospetsua, 2007an negozio-libururik onena bezala hartua, ekonomia eta teknologia mailan estatubatuarren nagusitasuna eta lidergoa mehatxatzen dituzten aldaketa globalei buruz eskaintzen duen ikuspegiगतिक.

Halaber, enpresa eta gobernuen aholkulari da (H. Clinton-en berrikuntza-aholkulari USAn, Finlandian, eta abarretan). Duela gutxi **The Institute for Large Scale Innovation (ILSI)** sortu du, mundu mailan berrikuntzaren katalizatzaile gisa aritzeko helburuarekin sortu den *think tank* bat. Kaok berak azaldu duenez, bizi ditugun aldaketen erritmoa eta sakontasuna ikusita, gaur egun nazio edo eskualdeek ez dute gaitasunik banaka testuingurura egokitzeko, eta garapen eta lankidetzarako ildo komunak ezarri behar dira. Ingurune horretan, dio Kaok, nahitaezkoa da hurbiltzen ari diren erronka globalei aurre egiteko berrikuntza-ereduak garatzea, ondorioz berrikuntzak munduko ongizatean eragin dezan.

Astea

Astea zientzia, teknologia eta berrikuntzaren gizarte-komunikaziorako Euskadin egiten den ekitaldirik handiena da, irudimena, sormena eta zientzia-bokazioak sustatzen laguntzen duen urteroko hitzordua. 2009an Astearen zortzigarren edizioa izango da, eta **200 ekitaldi baino gehiago daude programatuta publiko guztientzat**. Astearen erakunde publiko eta pribatu nagusiek parte hartzen dute, aipaturiko gai horiekin zerikusia dutenak. Astearen helburu nagusia gizartearen eta I+G+b artean elkarrikketa hobetzea da, zientzia, teknologia, berrikuntza, kalitate eta bikaintasunaren garapenarekin zerikusia duten gaitetan herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Aurten **Sormenaren eta Berrikuntzaren Europar Urtearen** programaren barruan sartzen da Astea, eta hortik hartu du bere goiburua ere: "Imagine. Create. Innovate".

Jarduera hauek egiteko datak Europako egutegiak ezartzen ditu, eta aurtengo edizioan beste ekitaldi handi batekin batera suertatu dira gurean: **Kalitatearen eta Bikaintasunaren Astea**, Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak antolatua. Bat etortze hori ikusita eta bi ekitaldien helburuen artean erabateko sintonia dagoenez, **Eusko Jaurlaritzak, Innobasquek eta Euskalitek beren programak bateratzea erabaki dute**, eraginkortasun eta gizarte-adierazgarritasun handiagoa izateko.

Esan bezala, hasierako hitzaldia Donostiako Victoria Eugenia Antzokian izango da, azaroaren 9an, 17:30etik aurrera. Ekintza honekin Astearen parte hartzen duten erakundeek beren laguntza eman nahi diote Donostia egiten ari den ahaleginari **Kulturaren Europako Hiriburu izan dadin 2016an**, honek hiria bera, Gipuzkoa eta Euskadi osoa proiektatzeko helburua duelarik.



www.astealasemana.org

Hasiera-emate ofiziala

2009ko azaroaren 9an 17:30ean

Victoria Eugenia Antzokia. Donostia

Hasierako hitzaldia: John Kao



JOHN KAO INAUGURARÁ LA SEMANA

Kao lidera el Instituto Large Scale Innovation (ILSI), encargado de definir, coordinar y conducir las agendas de innovación de países y regiones en el mundo, y su último trabajo, "Innovation Nation" ha sido aclamado como el mejor libro de negocios de los últimos años.

La ponencia de Kao inaugurará la Semana en el Teatro Victoria Eugenia, de Donostia, el 9 de noviembre, en un evento que forma parte de las acciones para promocionar la candidatura de capitalidad europea de la cultura de la capital guipuzcoana.

El Lehendakari del Gobierno Vasco, Patxi López presidirá el arranque de la Semana.

Bilbao, 22 de octubre de 2009.

John Kao es una de las voces más influyentes del mundo en materias de innovación y creatividad, y lleva a gala el sobrenombre de "Mr Creatividad" sugerido por la prestigiosa publicación The Economist en la portada que ofreció a Kao. Será el encargado del arranque de la octava edición de la Semana de la Ciencia, la Tecnología, la Innovación, la Calidad y la Excelencia, el **lunes 9 de noviembre en el Teatro Victoria Eugenia de Donostia-San Sebastián**. Será el punto de arranque de un extenso programa de divulgación, impulsado por el Gobierno Vasco, y coordinado por Innobasque y Euskalit, que se celebrará entre el 9 y el 22 de noviembre en todo Euskadi. Como es tradicional, el Lehendakari del Gobierno Vasco, Patxi López, presidirá el acto de inauguración.

John Kao es psiquiatra de formación, músico profesional de jazz, escritor, productor de películas y profesor universitario. Se describe a sí mismo como un "investigador de nuevas cosas" y reclama que las compañías y los gobiernos incorporen la innovación a todos los niveles, tal como él lo ha hecho en su vida y su trabajo. John Kao es fundador de un amplio abanico de empresas de todos los ámbitos (ciencias, innovación, nuevas tecnologías, ocio y entretenimiento, etc.). A su faceta empresarial, se suma también el componente artístico, al producir las películas "Sexo, Mentiras y Videos", "Mr. Baseball" y "El chico de oro". Gran amante del jazz, reconoce que esta disciplina ha inspirado todo su trabajo, ya que ve en su "equilibrio



entre inspiración y disciplina lo que debe ser institucionalizado en las organizaciones". John Kao es también profesor en la Harvard Business School (HSB), en el Media Lab del MIT, el Yale College y el US Naval Postgraduate School. Entre sus publicaciones más influyentes, cabe destacar "Jamming: el arte y la disciplina en la creatividad y los negocios", traducido a más de 12 idiomas, y el célebre "Innovation Nation", que fue considerado en 2007 como el mejor libro de negocios, por el enfoque que ofrece sobre los cambios globales que amenazan la supremacía y liderazgo económico y tecnológico estadounidense.

Es igualmente asesor de empresas y gobiernos (asesor en innovación de H. Clinton en USA, Finlandia, etc.). Recientemente ha creado **The Institute for Large Scale Innovation (ILSI)**, un think tank que nace con el objetivo de actuar como catalizador de la innovación a escala mundial. Según explica el propio Kao, a la vista del ritmo y de la profundidad de los cambios que estamos experimentando, hoy en día las naciones o regiones no disponen de capacidades para adecuarse de forma individual al nuevo contexto, y es preciso establecer líneas comunes de desarrollo y cooperación. En este entorno, defiende Kao, es imprescindible desarrollar modelos de innovación capaces de hacer frente a los retos globales que se avecinan, de tal suerte que la innovación revierta en bienestar mundial.

La Semana

La Semana es el mayor evento de comunicación social de la ciencia, la tecnología y la innovación que se celebra en Euskadi, una cita anual que contribuye a la imaginación, la creatividad y el fomento de las vocaciones científicas. En 2009 la Semana alcanza su octava edición, con **más de 200 actos programados y destinados a todos los públicos**. Participan en la Semana las principales organizaciones, públicas y privadas, relacionadas con las materias referidas. El objetivo general de la Semana es mejorar el diálogo entre la sociedad y la I+D+i para fomentar la participación ciudadana en cuestiones relacionadas con el desarrollo de la ciencia, la tecnología, la innovación, la calidad y la excelencia.

Este año, la Semana se inscribe en el programa del Año Europeo de la Creatividad y la Innovación, del que toma prestado su lema: **"Imagine. Create. Innovate"**.

Las fechas para la celebración de estas actividades vienen dadas del calendario europeo, que en esta edición ha hecho coincidir otro gran evento, la Semana de la Calidad y la Excelencia, que organiza en Euskadi la Fundación Vasca para la Calidad, Euskalit. A la vista de esta coincidencia y de la absoluta sintonía entre los objetivos de ambos eventos, **el Gobierno Vasco, Innobasque y Euskalit han decidido aunar los respectivos programas**, para mayor eficacia y representatividad social.



El acto inaugural se celebrará, como ya se ha señalado, en el Teatro Victoria Eugenia de Donostia, el día 9 de noviembre a partir de las 17:30h. Con esta actividad, las organizaciones que participan en la Semana quieren sumar su apoyo al esfuerzo que está realizando Donostia en el lanzamiento de su candidatura para acoger la **Capitalidad Europea de la Cultura en 2016**, un objetivo de proyección de la propia ciudad, de Gipuzkoa y de Euskadi.

www.astealasemana.org

Inauguración oficial

9 de noviembre de 2009 17:30 horas

Teatro Victoria Eugenia. Donostia-San Sebastian

Conferencia inaugural: John Kao

Harremanak = Contacto

Pilar Kaltzada (Innobasque)

Sustapena eta Komunikazioa arloko Zuzendari Nagusia
Directora General de Promoción y Comunicación

pkaltzada@innobasque.com

Tel.: +34 94 4209488 / Fax: +34 94 4209489